



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Derioko Udala

Beste herrialde batzuetako umeak aldi batean hartzeko diru-laguntzak emateko Ordenantzaren behin betiko onarpena.

2018ko irailaren 25eko ohiko Osoko Bilkurak, Beste herrialde batzuetako umeak aldi batean hartzeko diru-laguntzak emateko ordenantza hasieran onartu du.

Espedientea jendaurrean egon da 30 eguneko epean, 2018ko urriaren 9ko, 195. zenbakiko Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratuz.

Epe horretan alegaziorik, erreklamaziorik edo iradokizunik ez izanik, behin-behineko erabakia behin betiko onartu da, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoari jarraituz. Beraz, Araudiaren testu osoa Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratzen da.

Derion, 2020ko urriaren 20an. — Idazkaria

**BESTE HERRIALDE BATZUETAKO UMEAK ALDI BATEAN HARTZEKO
DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA****ZIOEN AZALPENA**

Ordenantza hau ematen da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1986 Legearen 4.1. artikuluan xedatzen duen ahal administratiboan betetzen.

Ordenantza honen bidez, aukerak ematen dituen eta txikiak baina eraldaketa sozial garrantzitsuak sortzen dituzten prozesuei laguntza ematen die Derioko Udalak. Udal honek beste herrialdetako umeak aldi batean hartzea sustatu nahi duelako, euren egoera sozio-sanitarioa eta bizitza kalitatea hobetzeko asmoz.

Diru-laguntzak tramitatzeko gastu publikoaren kudeaketetan aurrekontu egonkortasunari, gardentasunari, efizientziari eta efikaziari buruzko printzipioak aplikatuz, Derioko Udalak ordenantza hau ezartzen du, garapen bidean dauden herrietako edo katastroferen bat jasan duten herrietako umeak aldi batean hartzeko diru-laguntzak arautzen dituena, horrela giza opartasuna sustatuz.

1. artikulua. — Diru-laguntzaren xedea

Ordenantza honen xedea da beste herrialde batzuetako umeak aldi batean hartzeko diru-laguntzak arautzea, euren egoera sozio-sanitarioa eta bizitza kalitatea hobetzeko asmoz.

Deialdi bakoitzean zehar egiten diren aldi baterako harrerak direla eta, umeen bidaia eta herrira bueltatzeko gastuak ordaintzeko izango da diru-laguntza.

2. artikulua. — Araubide juridikoa

Laguntza hauen emakida arautuko dute Ordenantza honek, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorrak, Diru-laguntzei buruzko Araudi orokorraren uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, Derioko Diru-laguntzak arautzen zituen Ordenantzak eta konpromiso gastuaren kudeaketa eta onarpenari dagokion aurrekontuaren arautzailea.

3. artikulua. — Aurrekontu egozpena

Dagokion deialdiak ekitaldi bakoitzerako laguntzen hornidura finkatuko du bere aurrekontu banaketa zehaztuz, eta hori guztia izango da hurrengo artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

4. artikulua. — Diru-laguntzaren zenbatekoa

Diru-laguntzak emango zaizkie eskatzaile guztiei, baldin eta Ordenantza honetan dauden baldintzak betetzen badituzte. Eta diru-laguntzaren zenbatekoa izango da irizpide hauen arabera.

1. Gastua frogatu eta horretatik %50era iritsiko da diru-laguntzaren zenbatekoa, aurrekontuaren partida bakoitzak duen kreditura arte.
2. Eskaera ugari egon eta aurrekontuaren kredituak ezin badu %50a ordaindu, kreditua banatuko da onuradunen artean, gastu frogatuaren ehunekoa berdina izan dezaten.

5. artikulua. — Betekizunak

Onuradunek honako baldintzak bete beharko dituzte:

1. Derion errolatuta egotea, gutxienez urte bateko antzinasunarekin udal erroldan deialdia egiten denetik.
2. Euskadiko Autonomia Erkidegoan behar bezala erregistraturiko Elkarteen bidez jarriko dira harremanetan umeak eta halaxe kudeatuko da umeen bidaia ere.
3. Diru-laguntzen araudi ezartzen dituen betekizunak betetzea.

6. artikulua. — Deialdien araubidea

Urteko Derioko Udalak, aurretik Tokiko Gobernu Batzarrak onartuta, diru-laguntzen deialdia erabakiko du dagokion ekitaldientzat. Deialdiak argitaratu beharko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean (www.deriokoudala.net).

**7. artikulua. — Eskariak aurkeztea**

Horretarako Udalak erraztuko duen eskaera-orria aurkeztuko da Udalaren Erregistroan, eta horrekin batera, urteko deialdiari dagozkion dokumentuak ere aurkeztuko dira:

1. Adingabearen bidaiaren arduradun den Elkarte Eusko Jaurlaritzaren elkarten erregistro ofizialean izena emanda duela azaltzen duen ziurtagiriaren kopia.
2. Bitartekaria den Elkarte onuradunaren ziurtagiria datu hauekin: harrera egiten duen pertsona fisikoaren identitatea, arduratzen den umea eta horren lekualdaketa eraginkortasuna.
3. Banketxearen izena eta kontu zenbakia 20 digituarekin, pertsona eskatzailearen izenean dagoela, diru-laguntza sartzeko.
4. Honako egoeraz Zinpeko aitortpena:
 - a) Gizarte Segurantzarekin, Ogasun Foru eta Derioko Udalarekin ordaindu beharreko kuoten ordainketan egunera izatea.
 - b) Diru-laguntzeri buruzko 38/2003 Legearen 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako bateraezintasunetan sartuta ez egotea.
 - c) Bestelako erakunde pribatu zein publikoei xede berekoarekin eskatutako laguntzak, erakundearen izena eta zenbatekoa adieraziz.
5. Umearen jatorrizko herrialdeetik izandako bidaia dela eta, ordaindu izanaren egiaztagiriak eta horien kopiak.

Zentzu honetan onartuko dira bai adingabearen bidaiako fakturak bai Elkarte bitartekariak egindako ziurtagiria, pertsona eskatzaileak ordaindutako zenbatekoa egiaztatzen duena.

Egindako gastutzat hartuko dira benetan ordaindu direnak deialdi bakoitzari dagokion ekitaldian.

Udalak egiaztatuko du onuraduna Derioko udalerrian erroldatuta dagoela.

Udalak eskatzailearen aitortpenak egiaztatzeko eskubidea edukiko du, eta horretarako behar diren datuak eta txostenak eska diezazkieke beste erakunde publiko zein pribatuei.

Iturriak ezkututzen badira edo eskabideak osorik bete gabe edo faltsututa aurkezten badira, ez da diru-laguntzarik emango, eta gainera, iruzur-ekintza horrek erantzukizun legalak eduki litzake.

Eskabideak aipatutako betekizunak betetzen ez baditu, gehienez 10 eguneko epe luzaezina izango du interesdunak akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko; eta hala ez bada, bere eskaerari uko egiten diola ulertuko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroren 26ko 30/92 legearen 71. artikuluan aurreikusten diren baldintzak betetzen dituen ebatzia alde aurretik eman ondoren.

8. artikulua. — Eskariak aurkezteko epea eta lekua

Eskariak aurkezteko epea eta lekua adieraziko dira dagokion deialdian.

9. artikulua. — Prozedura

Diru-laguntzak emango dira araudi arautzailearen arabera, honako berezitasunekin:

1. Espedientearen organo eragilea da Derio Udaleko Idazkaria.

Organo eragileak ziurtatuko du, eskatzaileak Ordenantza honetan dauden baldintzak betetzen dituela, eta beharrezkoa denean, datuak zuzentzea eskatuz dagokion izapidea egin aurretik proposamena formulatuz.
2. Organo eragileak egindako ebaluazioa eta emate-proposamena dituen txostena luzatuko du.
3. Ebazpena emateko organo eskuduna Alkate-udalburua da. Ebazpena deialdi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehenago hartuko da.



Ebazpena jakinarazi gabe gehieneko epe muga amaitzen bada, ez onartutzat joko da diru-laguntzaren eskaera.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak neurri handi batean aldatzen badira, ebazpena ere aldatu egin daiteke.

Diru-laguntza emateari buruzko ebazpena administrazioen bidea agortzen du.

4. Ebazpena jakinaraziko zaio, diru-laguntza ematen zaionari eta ematen ez zaionari, halaber, organo erabakitzaileak beharrezkotzat jotzen dituen arrazoiak eta bestelako baldintzak adieraziko dira.

Ebazpena Udaleko iragarki oholean eta webgunean argitaratuko da.

10. artikulua.— Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Ordenantza honetan aurreikusitako efektuetara, diru-laguntza jaso dezaketen gastuak honakoak dira: ezbairik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin eta helburuarekin bat etorri direnak, eta deialdiari dagokin ekitaldian egiten direnak.

Kontuan hartuta laguntza honen helburua dela umeak ekartzea eta berriro eramatea euren herrira, bidaiaren zenbatekoa ordainduko da.

Adingabeen lekualdatzea, egonaldia eta itzulerak burutzeko jarduketak sartuta geratzen dira (aseguruak, jatorriko herrialdeko ezinbesteko izapideak, eta abar.).

11. artikulua.— Diru-laguntzak ordaintzea

Diru-laguntzaren emakida jakinarazi eta gero, hori ordainduko da transferentziaren bidez eskatzailearen banketxe kontura.

12. artikulua.— Onuradunen betekizunak

Ordenantza honetan dauden betekizunez gain, onuradunak honako hauek ere bete behar ditu:

1. Diru-laguntzen emakidaren araudi arautzaileak ezartzen dituen betekizunak betetzea.
2. Egiatzapen eta finantza kontrolerako behar diren egiaztapenetara jartzea, horretarako eskatzen zaion informazioa aurkeztuz.
3. Udalak ezarritako egunean eta orduan bertaratzea argibideak emateko jasotako diru-laguntzei buruz, hala behar izanez gero.

Eskabidean azaldutako daturen bat Udalak egiaztatutakoekin bat ez baletor, interesdunak banakako diru-laguntza hauen onuradun izaera galduko du aurrerantzean.

13. artikulua.— Bestelako diru-laguntzekin bateragarritasuna

1. Derioko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira bestelako administrazio, erakunde publiko edo pribatuek emandakoekin edo bestelako sarrerekin, xede bera finantzatzek, baina inola ere ez da egongo behar baino gehiagoko finantziatorik; hau da, Derioko Udalak emandako zenbatekoak, beste erakunde batzuen diru-laguntzekin batuta, ezin du gainditu jardueraren kostu osoa.

2. Udalak ez dio diru-laguntza bi emango jarduera bat diru-laguntzen deialdi ezberdinen bidez.

14. artikulua.— Publizitatea

Emandako diru-laguntzaren ezaugarriak direla eta, onuradunek ez dute publizitate eman behar jasotako diru-laguntzari buruz.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau osorik argitaratuko da Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, eta indarraldia Tokiko Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 eta 65.2 artikuluek aipatzen duten 15 eguneko epea igaro ondoren hasiko da.